

**949/2022 EBAZPENA, AZAROAREN 8KOA, GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZA- EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAN, GARAPEN ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDETZAN, PRESTAKUNTZA UNITATEAN, ADMINISTRARI LAGUNTZAILE BAT BETETZEKO DEIALDIA BETE GABE UZTEN DUENA.**

### AURREKARIAK

Irailaren 19ko Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren 747/2022 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako Prestakuntza Unitatean, Giza Baliabideetako Zuzendaritza, administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egiten da, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunaren bidez. Deialdi hori 2022ko irailaren 28an argitaratu zen webgunean.

### EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako Prestakuntza Unitateko Giza Baliabideetako Zuzendaritza administrari laguntzaile lanpostu bat barne-sustapen bidez betetzeko deialdia, izangairik ez dagoelako.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 8a



Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD